Jose Mari Zendoia

EUSKARAREN ERABILPENA INDUSTRI-ENPRESETAN

OARSOALDEAN ETA UROLA ALDEAN EGINDAKO INKESTAK

EUSKARA LAN-MUNDUAN (EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA)

Bakerenen erantzuketak dituela
(Badago beste bertsio berriagoa)

EUSKARAREN ERABILPENA LAN-MUNDUAN

Gure lanaren ardatza egoera elebidunak, eta modu zehatzago batean, hizkuntza gutxitu baten existentziak komunitate batean dituen eragin ekonomikoak aztertzea da. Honen harian, sektore ekonomiko desberdinetan egoera linguistiko berezi honen eragina desberdina izango dela aurrikustea begi-bistakoa da: nekazaritza esplotazio txiki batean diharduten langileak familia berekoak badira, beren ama-hizkuntza erabiliko duten artean, lantegi handitan, non jatorri desberdineko beharginak ari diren lanean, talde linguistiko nagusiaren hizkuntzak aurre hartuko dio beste edozein hizkuntzari, edota gehienera ere, langile-multzo desberdinak sortuko dira, erabilitako hizkuntzaren arabera. Antzera, zerbitzu-enpresak egokituko dira bezeroen eskariari, eta ondorioz, hizkuntza gutxituak indarra duen lekuetan zerbitzuak hizkuntza horretan jaso ahal izatea errazagoa izango da, aurkako egoera linguistikoa duten eremuetan baino.

1991 urtean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egin zuen inkesta soziolinguistikoaren emaitzak aztertzeko, Josean Urdangarinek BAT aldizkarirako prestatutako artikuluan[1] agertzen denez, euskaldunek lantokian euskara erabiltzen dute beti edo gehienetan harremanetako %82an, lantokian denek edo ia denek euskara dakitenean, baina denek edo ia denek ez dakitenean %57an erdara erabiltzen da beti edo gehienetan. Datu hauek euskararen aldeko joera erakusten badute ere, kontutan hartu behar da euskaraz dakitenek emandakoak direla, hau da, populazioaren laurdenak, eta gainera enpresa batean denek edo ia denek euskaraz jakitea, probabilitate hutsez, askoz ere zailagoa dela gehinek euskara ez ezagutzea baino[2].

Euskal Herriari dagokionean, eremu euskaldunetako baserrietan, euskara lan-hizkuntza den bitartean, lantegietan egoera zeharo aldatzen da, Siadecok egindako azterketa guztietan erraz froga daitekeenez. Industri-enpresetan batez ere nabaria da hau, langile multzo handienak bezeroekin zein hornitzaileekin harremanik ez duelako. Bestalde, honelako enpresak pribatuak izanik, administrazioan euskaldunen eskubideak bermatzeko legedia (EAEren kasuan bereziki) aplikatzerik ez dago. Hau honela izanik, alegia, industri-enpresak euskararekiko esparru mugatuenetakoa osatzen dutelarik, interesgarria iruditu zaigu mota honetako enpresetan euskararen egoera zein den ezagutzea, eta batez ere, enpresetako arduradunentzat euskarak eduki dezakeen balio erantsiak zer-nolako garrantzia duen aztertzea.

---

[1] Urdangarin, J.: "Euskararen egoera lan munduan: hurbilpenerako datuak", BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 11. zkia., 31-45 orr., 1993ko abendua, Donostia.

[2] Euskaldunez osatutako taldeak eratzeko probabilitateari buruz, ikus Alvarez Enparantza, J.L. eta Isasi Balantzategi, X.: *Soziolinguistika matematikoa*, UEU, Bilbo, 1994.

Aipatu dugun Urdangarinen artikuluan zehazten denaren arabera, langile euskaldunek gehiagotan erabiltzen dute euskara lankideen arteko harremanetan industrian zerbitzuetan baino. Dena den, barne-erabilpena ezagutzea ez da gure lehen helburua, baizik eta enpresariarentzat euskarazko funtzionamendua eta eskaintza enpresa-antolaketaren aldagai berezia ote den jakitea. Horregatik aukeratu ditugu industri-enpresak, kasurik gordinena direlako: zerbitzuetako enpresetako kudeatzaileek burutu ditzakete euskarazko eskaintza bereziak euskal bezeroen eskaria asetzeko, eskainitako zerbitzuen arabera, baina industrian euskara kontutan izatea eta hizkuntz egoera elebidunari garrantzia ematea marketing hutsa baino gehiago adierazten du.

Egia da badagoela zenbait esperientzia industri-enpresen jarduera euskalduntzen joateko. Hemen kokatzen ditugu CAF, Elay taldea, MCC taldeko zenbait kooperatibatan eta beste zenbait enpresatan indarrean dauden euskalduntze plangintzak, hala nola plangintza hauek osatzeko metodologi taldeak (Elhuyar, Euskalan)[3]. Baina esperientzia bakanetatik at, euskararekiko jarrerak industri-enpresetan nolakoak diren ezagutu nahi dugu.

Gure azterketarako galdeketa bat prestatu genuen Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako industri-enpresetan banatzeko, beherago zehazten den metodologia erabiliz[4]. Nagusiki, saiatu gara ikusten ea eskualde honetako enpresa-arduradunen artean, euskara lan-hizkuntza moduan erabilia izateak eragin positiborik eduki dezakeen enpresen jarduera eta emaitzak hobetzeko garaian, eta hala balitz, emaitza positibo horiek lortzeko zenbateko inbertsioa egingo luketen euskalduntze egitasmoren bat burutzen.

Aipatu inkesta 1997ko ekainean burutu zen. Oarsoaldea aukeratzeko arrazoi nagusiak ondokoak izan ziren, inkesta egiteko erabili zen metodologian frogatuko dugunez: biztanlego euskaldunaren proportzioa Euskal Herri osokoaren parekoa da, sektore ekonomiko desberdinek duten pisua ere Euskal Herriko batez bestekoaren antzekoa da, eskualdean badago nekazaritza-inguru bat, industrializatua dago eta aldi berean barruti urbanoak dauzka, eta ez da hiriburu bat baina Donostiatik gertu dago. Arrazoi hauengatik, iruditu zitzaigun eskualde honetan lortutako emaitzak adierazgarriak izan zitezkela, hau da, inkesta Euskal Herri osoan egin ezkero, batez beste antzeko emaitzak lortuko zirela.

---

[3] Honelako ekimenen egoera eta traszendentziari atal berezia eskaintzen diogu aurrerago.

[4] Lau udalerri hauek osatutako eskualdea Oarsoalde izenez adieraziko dugu, eskualdearen izen ofiziala ez bada ere.

Lehen inkesta horren emaitzak aztertu ondoren, beharrezkoa iruditu zitzaigun metodologia eta galdeketa bera erabiliz, prozesua errepikatzea eskualde industrializatu eta euskaldun batean. Horretarako, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa udalerrietako enpresak aukeratu genituen[5], bertan bigarren sektorea oso hedatua egonik, euskaldunen portzentaia %85ekoa delako. Bigarren inkesta hau 1998ko otsailean egin zen.

LEHEN INKESTA: EUSKARAREN EGOERA ETA ETORKIZUNA OARSOALDEKO INDUSTRI-ENPRESETAN (LEZO, ERRENTERIA, PASAIA, OIARTZUN)

Gorago aipatu bezala, lau herri hauek aukeratuak izan dira beren egoera linguistikoa Euskal Herriko batez bestekoaren adierazgarri izan daitekeelako, euskal hiztunen proportzioari dagokionean. Gainera, Euskal Herrian zehar euskal hiztunen distribuzioa oso irregularra izanik, lau herri hauetan ere antzekoa gertatzen da (Oiartzunen euskaldunak biztanlegoaren %76a diren artean, Errenterian soilik %24a da euskalduna).

Lehen bi taulatan eskualdeko populazioari buruzko datuak azaltzen dira. Lehenengoan, herri bakoitzeko, eskualdeko, Gipuzkoako, EAEko eta Euskal Herriko euskaldunen eta ia-euskaldunen portzentaiak datoz. Ikus daiteke eskualdeko euskaldunen proportzioa Euskal Herrikoa baino handiagoa dela (% 32 eta %24, hurrenez hurren), baina Gipuzkoakoa (%45) baino txikiagoa. Aukeratu genezakeen Euskal Herriko portzentaia bera duen eskualderen bat, baina geroago ikusi dugunez, biztanlegoaren herena euskalduna izatea ez da nahikoa (ez dago masa kritikorik) industri-enpresen jarduera euskalduna izateko, eta emaitzak are kaskarragoak lirateke. Dena den, eskualdearen hizkuntz-egoera interesgarria iruditu zaigu orekatua ez delako, eta datu hau euskal gizartearen adierazgarritzat jo dugu.

Bigarren taulan, sektore ekonomiko desberdinen garrantzi erlatiboa aztertzen da. Arlo honetan ere, biztanlego aktiboaren banaketa sektoreka antzekoa da lau herri hauetan eta Euskal Herri osoan. Agian, langabezia zertxobait altuagoa da eskualde honetan desindustrializazioak eragin handiagoa eduki duelako beste zenbait eskualdetan baino. Kasu honetan ere, Euskal Herri osoko aniztasuna gordetzen da, lehen sektoreak Oiartzunen (nekazaritza) eta Pasaian (arrantza) indar berezia duelako.

---

[5] Lan honetan hiru udalerri hauek osatzen duten eskualdeari Urola aldea deitu diogu, nahiz eta Urola bailara zabalagoa izan.

1. taula: Oarsoaldeko, Gipuzkoako, EAEko eta EHko euskal hiztunak

	Lezo	Errenteria	Pasaia	Oiartzun	Oarso- aldea	Gipuzkoa	EAE	Euskal Herria
Euskaldunak Ia-euskaldunak	2599 1134	10070 9804	4848 4002	6264 914	23781 15854	305403 123691	543617 410536	602354 182700
Biztanl(>2urte) Biztanleak	5179 5281	41096 41646	18041 18314	8228 8413	72544 73654	665012 676488	2068927 2104041	2444854
Proportz. (%)	**50**+21 72	**24**+23 48	**26**+22 49	**76**+11 87	**32**+21 54	**45**+18 64	**26**+19 46	**24**+7 32

Lehen lau errenkadetako datuak, totalak dira. Azken bi errenkadetakoan, berriz, honela banatutako ehunekoak: **2 urtetik goragoko biztanleekiko euskaldunak** + 2 urtetik goragoko biztanleekiko ia-euskaldunak = Aurreko bien batura

2. taula: Okupazio-mailak Oarsoaldean, Gipuzkoan eta EAEn:

(%)	Oarsoaldea	Gipuzkoa	Euskal Aut. Erkid.
Biztanleak(≥16urte)	59.808	549.391	1.705.137
Biztanlego aktiboa	52,3	52,1	51,1
Biztanlego langilea	40,5	42,8	41,3
- nekazaritza/arrantz	1,9	1,3	1,2
- industria	13,1	16,5	15,0
- eraikuntza	4,0	3,1	3,1
- zerbitzuak	21,4	21,8	22,0
Langabetuak	11,8 (22,6)	9,3 (17,8)	9,8 (19,1)

Lehen errenkadako datuak totalak dira, gainerakoak portzentaiak. Azken errenkadan langabezi-tasa biztanlego totalarekiko agertzen da, eta parentesi artean, biztanlego aktiboarekiko.

Ondoren, eskualdeko industri-enpresen -inkestako unibertsoaren- banaketa aztertzen da, herriz herri zein sektorez sektore, eta ondoren laginaren ezaugarriak zehazten dira, unibertsokoekin alderatuz.

Unibertsoaren datuak, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriako 10 langiletik goragoko industri-enpresak dira, eta hauek ezagutzeko erabilitako iturria, 1995eko EAEko industri-enpresen katalogoa.

Aukeratu den eskualdean 10 langiletik gora duten 122 industri-enpresa daude, herriz herri banatuta hirugarren taulak adierazten duen moduan. Guztira 4975 langile daude enplegaturik, taulan herriz-herri sailkatuak. Batez beste, enpresarik handienak Errenterian daude, eta txikienak, berriz, Lezon.

3. taula: Eskualdeko industri-enpresak eta hauetan enplegatutako langile kopurua

Herria	Enpresa kop.	(%)	Langile kop.	(%)	Lang./Enpr.
Lezo	28	(22,9%)	702	(14,1%)	25,0
Oiartzun	42	(34,4%)	1761	(35,4%)	41,9
Pasaia	30	(24,5%)	1147	(23,0%)	38,2
Renteria	22	(18,0%)	1365	(27,4%)	62,0
GUZTIRA	122	(100%)	4975	(100%)	40,7

Iturria:

Lehen zutabea: industri-enpresen kopurua udalerri bakoitzean
Bigarren zutabea: udalerri bakoitzean dauden enpresen portzentaia eskualde osoarekiko
Hirugarren zutabea: lehen zutabeko enpresetan enplegatutako langile kopurua
Laugarren zutabea: udalerri bakoitzeko langilegoaren portzentaia eskualde osoarekiko
Bostgarren zutabea: enpresetan enplegatutako langile kopurua, batez beste

Laginarako, 31 enpresa hartu dira zoriz, hau da, guztien %25´4a, eta proportzio hau gorde da herriz-herriko selekzioan. Beraz, lagineko enpresen distribuzioa egiazkoaren parekoa da. Aukeraketa egin ondoren, 31 enpresa horietan 1364 langile enplegaturik daudela ikusi da, hau da, guztiaren %27´4a, eta proportzioa antzekoa da herriz-herriko selekzioan. Beraz, lagineko langilegoaren distribuzioa egiazkoaren parekoa da, eta ondorioz, laginerako hartuak izan diren enpresetan batez beste lan egiten duten pertsona kopuruak mantentzen dira.

Laugarren taulan lagineko enpresa-kopurua eta bertako langilegoaren distribuzioa agertzen dira, herriz herriko sailkapenean.

4. taula: Lagineko enpresak eta horietako langile okupatua

Herria	Enpresa kop. (%)	%	Langile kop.	%	Lang./Enpr.
Lezo	7 (22,5)	25,0	170 (12,4)	24,2	24,2
Oiartzun	11 (35,4)	26,1	501 (36,7)	28,4	45,5
Errenteria	8 (25,8)	26,6	320 (23,4)	27,8	40,0
Pasaia	5 (16,1)	22,7	373 (27,3)	27,3	74,6
GUZTIRA	31 (100)	25,4	1364 (100)	27,4	44,0

Lehen zutabea: laginerako hartutako enpresa kopurua (portzentaia eskualdearekiko)

Bigarren zutabea: laginerako hartutako enpresen portzentaia, existitzen diren guztiekiko

Hirugarren zutabea: lehen zutabeko enpresetan enplegatutako langile kopurua (portzentaia eskualdearekiko)

Laugarren zutabea: lagineko enpresetako langile kopuruaren portzentaia, enplegautako guztiekiko

Bostgarren zutabea: lagineko enpresetako batez besteko langile kopurua

Enpresen tamainari buruz, unibertsoa honelakoa da, bostgarren taulan azaltzen den moduan: 4 enpresetan soilik 250 langile baino gehiago daude, guztira 1212 langile okupatuz (hau da, langilegoaren laurdena). Bestalde, enpresa gehienetan (110, edota totalaren %90´1an) 10 eta 99 langile artean dago enplegaturik, guztira 2620 langile izanik enpresa hauetan daudenak (langilegoaren erdia baino zertxobait gehiago).

5. taula: Eskualdeko enpresak, tamainaren arabera

Tamaina	Enpresa kopurua	Langilego totala
>250	4	1212 (24,3)
100-249	8	1143 (22,9)
10-99	110	2620 (52,6)
GUZTIRA	122	4975 (100)

Lehen zutabea: enpresa kopurua enplegatutako langile kopuruaren arabera

Bigarren zutabea: lehen zutabeko enpresetako langile kopurua (portzentaia totalarekiko)

Laginerako hautatu diren enpresen tamainari dagokionez, enpresa handien, ertainen eta txikien artean ere erizpide berdina erabili da: unibertsoaren laurdena hartzea. Ondorioz, langilegoaren distribuzioa enpresen tamainari dagokionean antzekoa da unibertsoan zein laginean. Hau guztia seigarren taulan adierazita dago.

6. taula: lagineko enpresen distribuzioa, tamainaren arabera

Tamaina	Enpresa kopurua	Guztiaren %	Langilego totala	Guztiaren %
>250	1	25,0	303 (22,2)	25,0
100-249	2	25,0	332 (24,3)	29,0
10-99	28	25,4	729 (53,4)	27,8
GUZTIRA	31	25,4	1364 (100)	27,4

Lehen zutabea: laginerako hartutako enpresa kopurua, langilego okupatuaren arabera
Bigarren zutabea: lehen zutabeko enpresen portzentaia, existitzen diren guztiekiko
Hirugarren zutabea: lagineko enpresetako langilego okupatua, enpresen tamainaren arabera (portzentaia totalarekiko)
Laugarren zutabea: lagineko enpresetako langilegoaren portzentaia, enpresa guztiekiko

Iruditzen zaigu lagina adierazgarria dela, enpresa totalen laurdena aztertzen delako (eta enpresek enplegatzen duten langilegoaren %27a enpresa hauetan dagoelako), enpresetako tamainaren eta kokapenaren distribuzioak gorderik. Beraz, inkestan lortzen diren emaitzek modu esanguratsu batean azaltzen dute enpresa hauetan euskararen egoera eta euskarari buruzko jarrera zein diren.

Oharra: lau herri horietan populazio aktiboaren % 17,1ek lan egiten du industria eta eraikuntzan, 10.227 langile guztira, eta zerrendatutako enpresetan (10 langiletik gorakoetan) 4975 langile aritzen da, beraz, langilegoaren erdia baino gehiago (% 51,3a) 10 langile baino gutxiagoko enpresetan aritzen da, eta hauek ez ditugu kontutan hartu. Datu honek emaitzak desorekatuko dituela aurrikus daiteke, zeren zenbat eta pertsona-multzo txikiagoak izan, euskara erabiltzeko aukera handiagoa baita.

LEHEN INKESTA: ERANTZUNAK

Inkesta hau bidali zitzaien aukeratutako 31 enpresetako zuzendariari edo gerenteari. Erantzun zuten 10 enpresek, eta honek lehen ondorio bat adierazten digu: enpresa guztietatik bi herenak ez du gai honi buruzko interes gehiegirik (enpresa batzuetatik barkamena eskatu zuten, zenbait arrazoiengatik ez zutela erantzungo adieraziz: lanpetuta zeudela, inkesta gehiegi iristen zaizkiela, euskararen gaiak ez duela garrantzirik, e.a.). Dena den, erantzun kopuruak adierazten du industri-enpresa gutxi batzuk dutela euskararekiko nolabaiteko kezka.

Erantzundako galdeketen artean, bietan euskara aukeratu zen eta gainerakoetan gaztelera, hau izanik aipatu beharreko lehen datua: galderen artean agertzen ez bazen ere, erantzunetarako egindako hizkuntz-aukeraketa soilak adierazten du enpresen bostenak bakarrik duela euskarazko harreman idatziak edukitzeko gaitasuna edota gogoa, eta hori bi hizkuntzatan egiteko aukera ematen zaionean, ahaztu gabe inkestaren gai nagusia euskararen erabilpen maila bera zela.

Erantzundako galdeketen artean jasotako emaitzak, ondorengo atalean daude. Erantzunak bost multzo desberdinetan elkartu ditugu, galdeketan azaltzen diren atalak bilduz. Kontutan eduki behar da galdeketan euskara erabiltzeko ala ez erabiltzeko

arrazoietan, eskainitako aukeren artean bat baino gehiago hartu zitezkeela. Beraz, ondoko datuetan agertzen dira arrazoi horien maiztasunak.

1.- Euskararen erabilpena kanpo harremanetan:

Oso enpresa gutxik esaten du euskara erabiltzen duela kanpo harremanetan (bezero, hornitzaile eta beste erakundeekin -bankuak, administrazioa,...-), eta edozein modutan ere, kanpo harreman guztiekiko oso proportzio txikian (herri horietako euskaldunen proportzioa baino askoz ere txikiagoan), normalean hitzezko harremanetan.

1.1.- Kanpo harremanetan euskara ez erabiltzeko arrazoiak:

- bezeroek ez dute eskatzen (5)
- gaztelera erabiltzea nahikoa da (1)
- Europako Batasunean ez da beharrezkoa (1)
- enpresaren merkatua Euskal Herritik kanpo dago (1)
- Euskal Herriak daukan irudi txarra (1)

1.2.- Positiboa litzateke euskara erabiltzea:

- gure inguruaren hizkuntz egoerara egokitzeko modua litzatekelako (4)
- Euskal Herrian kokatuta gaudelako (3)
- euskararen normalkuntzarako laguntza litzatekelako (2)

2.- Gure produktuak euskaraz eskaini ahal izateko:

- dauden langileak euskalduntzeko gastua egin beharko genuke (3)
- itzulpen zerbitzuak kontratatu (2)
- langile gehiago kontratatu (1)

3.- Euskararen erabilpena enpresen barne jardueran:

Kanpo harremanetan bezala, barne jardueran euskara ia ez da erabiltzen.

3.1.- Enpresen jardueran euskararik ez erabiltzeko arrazoiak:

- langile askok ez dakite euskaraz (6)
- ez delako beharrezkoa (1)

3.2.- Enpresaren jardueran euskara erabiltzea positiboa litzateke:

- enpresa euskaldunduko genukeelako (4)
- gizarte-eskari bat dagoelako (2)
- inguruko enpresek geroz eta gehiago erabiltzen dutelako (1)

4.- Euskararen erabilpena publizitatean:

Orohar, publizitatea gazteleraz egiten da, zenbait kasutan euskaraz ere, eta baita beste zenbait hizkuntzatan ere (ingelesa, frantsesa,...)

4.1- Publizitatean euskara ez erabiltzeko arrazoiak:

- inoiz horrelakorik ez zaigulako bururatu (5)
- gure merkatua Euskal Herritik kanpo dagoelako (3)
- gazteleraz egitea nahikoa delako (1)

5.- Prest egongo al zinateke enpresa euskalduntzeko gasturik egiteko?

Bai: 0 erantzun

Ez:
- gastu hori ez delako beharrezkoa enpresarentzat (3)
- gaurko egoeran, ezinezkoa zaigu gastu gehigarririk egitea (4)
- enpresaren lehentasuna ez delako (2)
- enpresari onurarik ez liokelako ekarriko (1)

5.1.- Hala ere, batzuk geroago aipatzen dute gastatu lezaketen diru kopuru bat

5.2.- Euskalduntzean egindako gastuak diru sarrerak handitzeko balioko luke:
- bai: 0 erantzun
- ez: erantzun guztiak

LEHEN INKESTA: ONDORIOAK

Eskualde honetako euskaldun kopurua garrantzitsua izanik ere, bertako industri-enpresetako arduradunentzat euskarak ez du pareko garrantzirik. Alde batetik, erantzunen kopuru murritzak nolabaiteko utzikeria adieraz dezake. Galdeketak telefonoz eskatu zirenean, gai honek enpresen jardueran eragin gehiegirik ez duela eta, honelako galdeketak betetzea denbora galtzea zela adierazi zitzaigun erantzun gehienetan.

Bestalde, eta jasotako erantzunetatik, ondorio batzuk azpimarra ditzakegu. Lehena, enpresetako barne-jardueran zein kanpo harremanetan, euskararen erabilpena oso urria dela. Honelako emaitzak lortu ziren ere Siadecok herri hauetako enpresetan egin zituen inkestetan (1990ean Errenterian eta 1994an Lezo, Oiartzun eta Pasaian). Gogoratu behar da inkesta honetan zehaztasun gehiagoz aztertzen zela euskararen egoera enpresetan, gure inkestan hau bigarren mailako helburua izan delarik.

Kanpo harremanetako erabilpen eskasari buruz, emandako erantzunen artean gehien aukeratuak bezeroen gain uzten du ardura, baina barne harremanetako erabilpen urria bertako langileen hizkuntz gaitasunari egozten zaio. Dena den, enpresen jarduera euskalduntzea positibotzat hartzen da, inguruko egoera linguistikoari egokitzeko eta enpresa bera euskalduntzea balio positiboa dela aitortzen delako. Bestalde, jarrera hau kontraesankorra dirudi publizitateari buruzko galderetan adierazten denarekiko, zeren publizitatea euskaraz egitea inoiz bururatu ez zaiela esaten baita.

Lan honen aurkezpenean esan denez, gure helburua, batez ere, enpresetako arduradunentzat euskarak eduki dezakeen balio erantsiak neurtzeko ahalegina da. Honi dagokionez, euskara enpresetako lan hizkuntza bihurtzeak gastu gehigarriak sortuko lituzke, batez ere langileen hizkuntz gaitasuna egokituz eta langile euskaldun berriak kontratatuz, eta enpresek honelako gasturik egiteko borondate gutxi azaltzen dute.

Adierazgarriago dena: enpresaren jarduera euskalduntzea positibotzat jotzen badute ere, erantzuleetako inork ere ez du uste horrek eraginik edukiko duenik diru-sarreretan, alegia, euskalduntzearen alde ona hizkuntzaren egoera hobetzeagatik izango litzateke soilik, eta ez enpresaren mozkinak handituko liratekelako. Honek euskararekiko begirunea azaltzen badu ere, inguru honetako enpresariek euskarak eduki dezakeen balio erantsirik ez dutela ikusten garbi erakusten digu. Gure ustetan, enpresarien jarrerak ez du errealitatea osorik isladatzen (ikus beherago[6] lan munduan euskara ezartzeari buruzko Euskararen Aholku Batzordeko txostena, non enpresen euskalduntzearen alde positiboak aipatzen diren), baina noski, oso kontutan hartzekoa da, azken finean, edozein aldaketaren erabakia beren esku baitago.

Aurrekoarekin lotuta, administrazioaren erantzunkizuna ere aipatu beharko genuke: inkestari erantzundako kasu guztietan esaten da honelako ekimenek insituzioen babesik (diru-laguntzatan zehazturik) eduki ezkero, iniziatiba hartzeko garaian lagungarri gertatuko zela.

BIGARREN INKESTA: EUSKARAREN EGOERA ETA ETORKIZUNA UROLA ALDEKO INDUSTRI-ENPRESETAN (AZKOITIA, AZPEITIA, ZESTOA)

Esan bezala, aurreko eskualdeko emaitzak aztertu ondoren, eta ikusirik euskararen presentzia industri-enpresetan oso urria dela euskaldungoaren proportzioa Euskal Herrikoaren batez bestekoaren hurbil dagoen ingurune batean, eskualde euskaldunago batean zer gertatzen den ikertzea izan da gure hurrengo helburua. Horretarako, Urola aldeko Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako udalerrietan antzeko galdeketa bera banatu genuen.

Hiru herri hauek aukeratuak izan dira arrazoi bikoitz batengatik: euskaldunen proportzioa altua delako eta aldi berean jarduera ekonomikoa industrian oinarrituta dagoelako. Bi baldintza hauek betetzen dituzten eskualdeak ez dira ugariak: industria garatuta dagoen eremuetan euskaldunen portzentaiak batez bestekotik behera egon ohi

---

[6] Bigarren inkestaren emaitzen azterketaren ostean.

dira, eta bestalde, euskaldun ugari bizi diren herri gehienak txikiak dira eta industrializazio maila apala garatu dute. Ikus ditzagun hiru herri hauei dagozkien datuak.

Lehen inkestan egin dugun moduan, lehen bi tauletan eskualdeko ezaugarri demografikoak aurkezten ditugu. Lehen taulan, euskaldungoari buruzko datuak agertzen dira. Ikus daitekeenez, hiru herrietan euskaldunen proportzio altua, batez beste euskaldunen portzentaia %83koa izanik, eta ia-euskaldunak kontutan hartuz, portzentaia hori %91ra iristen delarik. Kontutan hartu behar da 10.000 biztanle inguruko herrien artean, horrelako euskaldun-indizeak Lekeitio, Ondarroa eta Oñatin bakarrik daudela, eta herri handiagoetan indize horietatik oso urrun dabiltzala.

Sektore ekonomikoen garrantziaren inguruko datuak bigarren taulan bildu ditugu. Eskualde honetan, biztanlegoaren banaketa ekonomi-sektore desberdinetan ez da Euskal Herrikoaren antzekoa, ez eta Gipuzkoako lurraldekoaren antzekoa ere. Alde batetik, langabezia txikiagoa da, eta bestalde, industriaren pisua nabarmena da. Datuak 1994ko urtekoak izanik ere, nabaria da hirugarren sektorearen garapenak ez duela ahuldu bigarren sektorea, alegia, zerbitzuen arloa ez dela zabaldu desindustrializazio prozesu baten ondorioz.

1. taula: Urola aldeko, Gipuzkoako, EAEko eta EHko euskal hiztunak

	Azkoitia	Azpeitia	Zestoa	Urola aldea	Gipuzkoa	EAE.	Euskal Herria
Euskaldunak Ia-euskaldunak	7938 1079	11512 813	2892 190	22342 2082	305403 123691	543617 410536	602354 182700
Biztanl(>2urte) Biztanleak	10325 10512	13155 13427	3320 3383	26800 27322	665012 676488	2068927 2104041	2444854
Proportz. (%)	**77**+10 87	**88**+6 94	**87**+6 93	**83**+8 91	**45**+18 64	**26**+19 46	**24**+7 32

Lehen lau errenkadetako datuak, totalak dira. Azken bi errenkadetakoan, berriz, honela banatutako ehunekoak: **2 urtetik goragoko biztanleekiko euskaldunak** + 2 urtetik goragoko biztanleekiko ia-euskaldunak = Aurreko bien batura

2. taula: Okupazio-mailak, Urola aldean, Gipuzkoan eta EAEn

(%)	Urola aldea	Gipuzkoa	Euskal Aut. Erkid.
Biztanleak(≥16urte)	21.813	549.391	1.705.137
Biztanlego aktiboa	50,3	52,1	51,1
Biztanlego langilea	42,2	42,8	41,3
- nekazaritza/arrantz	1,8	1,3	1,2
- industria	21,3	16,5	15,0
- eraikuntza	3,7	3,1	3,1
- zerbitzuak	15,2	21,8	22,0
Langabetuak	8,1 (16,2)	9,3 (17,8)	9,8 (19,1)

Lehen errenkadako datuak totalak dira, gainerakoak portzentaiak. Azken errenkadan langabezi tasa totalarekiko agertzen da, eta parentesi artean, biztanlego aktiboarekiko.

Ondoren, eskualdeko industri-enpresen -inkestako unibertsoaren- banaketa aztertzen da, herriz herri zein sektorez sektore, eta ondoren laginaren ezaugarriak zehazten dira, unibertsokoekin alderatuz.

Unibertsoaren datuak, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako 10 langiletik goragoko industri-enpresak dira, eta hauek ezagutzeko lehen inkestarako erabilitako iturri bera, 1995eko EAEko industri-enpresen katalogoa.

Aukeratu den eskualdean 10 langiletik gora duten 102 industri-enpresa daude, herriz herri banatuta hirugarren taulak adierazten duen moduan. Guztira 4386 langile daude enplegaturik, taulan herriz-herri sailkatuak. Batez beste, enpresarik handienak Azkoitian daude, eta txikienak, berriz, Azpeitian.

3. taula: Eskualdeko industri-enpresak eta hauetan enplegatutako langile kopurua

Herria	Enpresa kop. (%)	Langile kop. (%)	Lang./Enpr.
Azkoitia	29 (28,4%)	1723 (39,3%)	59,4
Azpeitia	60 (58,8%)	2158 (49,2%)	35,9
Zestoa	13 (12,8%)	505 (11,5%)	38,8
GUZTIRA	102 (100%)	4386 (100%)	43,0

Lehen zutabea: industri-enpresak udalerri bakoitzean
Bigarren zutabea: udalerri bakoitzean dauden enpresen portzentaia eskualde osoarekiko
Hirugarren zutabea: lehen zutabeko enpresetan enplegatutako langile kopurua
Laugarren zutabea: udalerri bakoitzeko langilegoaren portzentaia eskualde osoarekiko

Bostgarren zutabea: enpresetan enplegatutako langile kopurua, batez beste

Laginaren datuak, laburbilduta:

Laginarako, 26 enpresa hartu dira, hau da, guztien %25´5a, eta proportzio honetatik ez gara urrundu herriz-herriko selekzioan. Beraz, lagineko enpresen distribuzioa egiazkoaren parekoa da. 26 enpresa horietan 1243 langile daude enplegaturik, hau da, guztiaren %28´3a, baina kasu honetan enpresen tamaina batez bestekotik zerbait urrundu da. Enpresak zoriz aukeratuak izan dira, eta Azpeitikoetan batez beste 58 langile daude (928 guztira).

Unibertsoaren eta laginaren enpresak alderatuz, ikusten da laginerako hautatu diren enpresetako langilego okupatuari dagokionez, alborapen bat badagoela: eskualdeko langileen erdia Azpeitiakoa bada, laginean proportzio hau hiru laurdenetara iristen da. Honen arrazoia zera da, hiru herrietan enpresa handiak oso gutxi dira, bat aukeratu behar genuen eta zoriz Azpeitiako Marcial Ucín egokitu zen. Azkoitiako GSB Acero izan balitz, antzeko alborapena topatuko genuko Azkoitiaren alde. Dena den, ez dugu uste datu honek emaitzen batez bestekoan eragin handiegia eduki dezakeenik.

Laugarren taulan lagineko enpresa-kopurua eta bertako langilegoaren distribuzioa agertzen dira, herriz herriko sailkapenean.

4. taula: Lagineko enpresak eta horietako langile okupatua

Herria	Enpresa kop. (%)	%	Langile kop.	%	Lang./Enpr.
Azkoitia	7 (26,9)	24,1	246 (19,8)	14,2	35,1
Azpeitia	16 (61,5)	26,6	928 (74,6)	43,0	58,0
Zestoa	3 (11,5)	23,0	69 (5,5)	13,6	23,0
GUZTIRA	26 (100)	25,4	1243 (100)	28,3	47,8

Lehen zutabea: laginerako hartutako enpresa kopurua (portzentaia eskualdearekiko)

Bigarren zutabea: laginerako hartutako enpresen portzentaia, existitzen diren guztiekiko

Hirugarren zutabea: lehen zutabeko enpresetan enplegatutako langile kopurua (portzentaia eskualdearekiko)

Laugarren zutabea: lagineko enpresetako langile kopuruaren portzentaia, enplegautako guztiekiko

Bostgarren zutabea: lagineko enpresetako batez besteko langile kopurua

Enpresen tamainari buruz, unibertsoa honelakoa da: 2 enpresetan soilik 250 langile baino gehiago daude, guztira 1304 langile okupatuz (hau da, langilegoaren herena baino zerbait gutxiago). Bestalde, enpresa gehienetan (95, edota totalaren %93´1ean) 10 eta 99 langile artean dago enplegaturik, guztira 2384 langile izanik enpresa hauetan daudenak (langilegoaren erdia baino zerbait gehiago). Datu hauek guztiak bostgarren taulan laburbildu ditugu.

5. taula: Eskualdeko enpresak, tamainaren arabera

Tamaina	Enpresa kopurua	Langilego totala
>250	2	1304 (29,7)
100-249	5	698 (15,9)
10-99	95	2384 (54,3)
GUZTIRA	102	4386 (100)

Lehen zutabea: enpresa kopurua enplegatutako langile kopuruaren arabera
Bigarren zutabea: lehen zutabeko enpresetako langile kopurua (portzentaia totalarekiko

Laginean hartu diren enpresen tamaina, berriz, seigarren taulan azaldutakoa da. Enpresa handien, ertainen eta txikien artean ere erizpide berdina erabili da: unibertsoaren laurdena hartzea. Gorago aipatu dugunez, honek ekarri du lagina zamatua egotea, 250 langiletik gorako 2 enpresa egonik, horien laurdena hartzeko (biren laurdena 1/2 izanik) bi aukera baitaude: bat ere ez hartzea, edo bestela, horietako bat hartzea. Erabakia azken aukeraren aldekoa izan da, laginean behintzat enpresa handi bat egotea egokitzat hartu baikenuen.

6. taula: lagineko enpresen distribuzioa, tamainaren arabera

Tamaina	Enpresa kopurua	Guztiaren %	Langilego totala	Guztiaren %
>250	1	50,0	335 (26,9)	25,6
100-249	1	20,0	247 (19,8)	35,3
10-99	24	25,2	661 (53,1)	27,7
GUZTIRA	26	25,4	1243 (100)	28,3

Lehen zutabea: laginerako hartutako enpresa kopurua, langilego okupatuaren arabera
Bigarren zutabea: lehen zutabeko enpresen portzentaia, existitzen diren guztiekiko
Hirugarren zutabea: lagineko enpresetako langilego okupatua, enpresen tamainaren arabera (portzentaia totalarekiko)
Laugarren zutabea: lagineko enpresetako langilegoaren portzentaia, enpresa guztiekiko

Aipatu alborapena badagoela jakinda ere, iruditzen zaigu eskualde honetako lagina ere adierazgarria dela, enpresa totalen laurdena aztertzen delako (eta enpresek enplegatzen duten langilegoaren %28a enpresa hauetan dagoelako), enpresetako kokapenaren distribuzioa ondo gordetzen delarik, nahiz eta tamainaren distribuzioan ez dagoen hainbesteko uniformetasunik (unibertsoa txikiagoa delako eta enpresa handiak, oso handiak izanik, gutxi direlako). Beraz, uste dugu inkestan lortzen diren emaitzek modu esanguratsu batean azaltzen dituztela zeintzuk diren eskualde honetako enpresetan euskararen egoera eta euskarari buruzko jarrera.

Oharra: hiru herri horietan populazioaren % 25ak lan egiten du industria eta eraikuntzan, hau da, 5.468 langile guztira, eta zerrendatutako enpresetan (10 langiletik gorakoetan) 4.386 langile aritzen da, beraz, langilegoaren bostena (% 19,7a) 10 langile baino gutxiagoko enpresetan aritzen da, eta hauek ez ditugu kontutan hartu. Dena den, kasu honetan baztertutako enpresa eta langilegoa askoz urriagoa da Oarsoaldeko analisian suertatzen zenarekin alderatuz, eskualde horretan langileen erdiak lan egiten baitu 10 baino langile gutxiagoko enpresetan.

BIGARREN INKESTA: ERANTZUNAK

Inkesta hau bidali zitzaien aukeratutako 26 enpresetako zuzendariari edo gerenteari. Erantzun zuten 7 enpresek, eta honek lehen ondorio bat adierazten digu: enpresa guztietatik hiru laurdenak ez du gai honi buruzko interes gehiegirik. Jakina, kasu askotan ez erantzuteak beste arrazoi batzuk izango du: denbora falta eta antzekoak. Dena den, erantzun kopuruak adierazten du industri-enpresa gutxi batzuk dutela euskararekiko nolabaiteko kezka. Eremua euskaldunagoa izateagatik ere, erantzuteko garaian bigarren inkestan aurrekoaren oztopo berarekin topatu gara: analisirako datu eskasia. Honek emaitzen eta ondorioen adierazgarritasuna kolokan jar badezakeela ere ezagututa, jasotako erantzunen analisia egitea ezibestekotzat jo dugu.

Lehen inkestarekin alderatuz topatu dugun lehen diferentzia, erantzuteko aukeratu den hizkuntzari lotuta dago[7]. Adierazgarria da Urola aldeko enpresetako erantzunetatik lau euskaraz izan direla, eta beste hiruak gazteleraz (gogoratu Oarsoaldeko inkestan, proportzioa 2 / 8 izan zela). Hartan genionari lotuz, hizkuntz-aukeraketak euskarazko komunikazio idatziak edukitzeko ahalmena eta gogoa adierazten du, eta oraingo emaitza askoz hobe da euskararen erabilpenarekiko.

---

[7] Bide batez ohar bat: bigarren inkestaren erantzunak aztertzerakoan, bi inkesten arteko parekotasun eta desberdintasunak aipatuko ditugu.

Ondoren agertzen dira jasotako galdeketen emaitzak. Lehen egindako ohar berdinak errepikatuko ditugu: erantzunak bost multzo desberdinetan elkartu ditugu, galdeketan azaltzen diren atalak bilduz, eta kontutan eduki behar da galdeketan euskara erabiltzeko ala ez erabiltzeko arrazoietan, eskainitako aukeren artean bat baino gehiago hartu zitezkeela. Beraz, ondoko datuetan agertzen dira arrazoi horien maiztasunak.

1.- Euskararen erabilpena kanpo harremanetan:

Zazpi enpresetatik seik erabiltzen du euskara bere kanpo harremanetan (bezero, hornitzaile eta beste erakundeekin -bankuak, administrazioa,...-), nahiz eta gehienetan ez eduki erabateko harreman euskaldunik, alegia, erantzunen arabera gutxi gora behera erlazioen erdia edo euskaraz burutzen da (herri horietako euskaldunen proportzioa baino askoz ere txikiagoan), hitzezko harremanetan erabilpen-maila altuagoa delarik. Dena den, aldea nabaria da Oarsoaldeko enpresetan gertatzen zenarekin.

1.1.- Kanpo harremanetan euskara ez erabiltzeko arrazoiak:
- bezeroek ez dute eskatzen (3)
- enpresaren merkatua Euskal Herritik kanpo dago (2)
- gazteleraz egitea nahikoa da (1)

1.2.- Positiboa litzateke euskara erabiltzea:
- gure inguruaren hizkuntz egoerara egokitzeko modua litzatekelako (1)
- Euskal Herrian kokatuta gaudelako (2)

2.- Gure produktuak euskaraz eskaini ahal izateko:
- ez litzateke gastu gehigarririk egin behar (4)
- gastua gehitu beharko litzateke:
  - dauden langileak euskalduntzeko (1)
  - itzulpen-zerbitzuak kontratatzeko (1)
  - langile finkoak kontratatzeko (1)
  - aldi baterako langileak kontratatzeko (1)

3.- Euskararen erabilpena enpresen barne jardueran:

Inguru honetako enpresetan euskara sarri erabiltzen da barne jardueran. Enpresa guztietan euskara erabiltzen da sail guztietako ahozko harremanetan, nahiz eta bi enpresetan harremanen erdia edo gazteleraz izan. Idatzizko komunikazioetan ere euskararen erabilpena soma daiteke: bi enpresetan idazkiak euskaraz egiten dira, batean euskaraz %30ean eta beste lauetan, berriz, euskara ez da erabiltzen.

3.1.- Enpresen jardueran euskararik ez erabiltzeko arrazoiak:
- langile askok ez dakite euskaraz (1)

- enpresaren jarduera murriztuko litzatekeelako (1)

3.2.- Enpresaren jardueran euskara erabiltzea positiboa da:

- langileek beren hizkuntza erabiltzen dutelako (5)

4.- Euskararen erabilpena publizitatean:

Publizitatean euskarak badu presentziarik: hiru enpresetan gaztelera eta ingelesa / frantsea erabiltzen badira ere, bitan publizitatea euskaraz eta gazteleraz egiten da, eta beste bitan euskaraz, gazteleraz eta besteren batez, hau da, lau enpresek lekua egiten diote euskarari, eta beste hiruek ez.

4.1- Publizitatean euskara ez erabiltzeko arrazoiak:

- kostuak ez handitzeagatik (1)
- gure merkatua Euskal Herritik kanpo dagoelako (2)
- gaztelera nahikoa delako (2)

5.- Prest egongo al zinateke enpresa euskalduntzeko gasturik egiteko?

Enpresa batek baietz erantzun du, honako arrazoiak aipatuz:

- euskararen aldeko ekimen bat delako (1)

Bost enpresek ezetz erantzun dute, honako arrazoiak aipatuz:

- gastu hori ez delako beharrezkoa enpresarentzat (2)
- nahiz eta positiboa izan, ez da errentagarria (3)
- euskararen erabilpen maila nahikoa delako (1)

5.1.- Gasturik egiteko prest dagoen enpresan ez dute zenbatekoa zehazten

5.2.- Euskalduntzean egindako gastuak diru sarrerak handitzeko balioko luke:

- bai: 0 erantzun
- ez: erantzun guztiak

Inork ez du informaziorik euskalduntzeko diru-laguntza publikoak ba ote dauden gaiaren inguruan.

BIGARREN INKESTA: ONDORIOAK

Urola aldeko ingurua oso euskalduna bada ere, biztanlegoaren %83a euskalduna izanik (eta ia-euskaldunak kontutan hartuz %91ra iritsiz), enpresetan ez da maila horretan euskara erabiltzen. Dena den, Oarsoaldearekin konparatuz, diferentzia nabaria da. Esan daiteke euskara lan-munduan erabili ahal izateko, biztanlego gehiena euskalduna izatea ezinbestekoa dela, eta hala ere, horrek ez duela ziurtatzen enpresen barne- eta kanpo-harreman gehienak euskaraz burutuko direnik.

Erantzundako galdeketa bakoitza banaka hartuz, euskararen aldeko joera nabaria da, batez ere Oarsoaldean lortzen ziren emaitzekin alderatuz. Dena den, kontutan hartu behar

da jasotako erantzun kopurua urria izan dela, eta erantzun ez duten enpresetan ziurrenera euskararekiko jarrera ez dela horren positiboa izango.

Deigarria da euskararen kanpo harremanetan gaztelera erabiltzen den kasuetan, bezeroek hala eskatzen ez dutelako izatea. Eskualde honetako euskaldunen tasa begiratuz, ondoriozta daiteke bezero euskaldun askok (erdiak?) ez duela euskarazko harremanik eskatzen, nahiz eta enpresako zerbitzua eskainiko dion langilea euskalduna izan. Oarsoaldean ere hau zen gehien aukeratutako erantzuna, eta agian, interpretazio egokiena izan daiteke hartan aipatzen genuena: euskararen erabilpen urriaren erantzunkizuna bezeroen gain uzten dutela enpresek.

Deigarria da ere enpresa batzuen ustez gazteleraz jardutea nahikoa dela aipatzea, alegia, nahiz eta bezero guztiak euskaldunak izan, guztiek gaztelera ere ezagutzen dutenez, azken hau erabiltzea nahikotzat hartzea. Ez da maiztasun handiko erantzuna, baina zazpi erantzunetatik, bitan jaso da publizitateari buruzko galderan. Horretarako arrazoia, enpresa hauen merkatua Euskal Herritik kanpo egotea aipatzen da, baina pentsatzekoa da enpresa guztiek nahiago izango dutela gertueneko merkatuetara hedatzea, eta hor egon daiteke kontraesana, edo enpresen marketing akatsa.

Nabaria da erantzun gehienetan, enpresen jarduera euskalduntzeko ez dutela gastu gehiagorik egin behar. Aipatzen bada ere langile berriak kontratatu beharko liratekela, daudenak euskaldundu edo itzulpen zerbitzuak kontratatu, enpresa bakar batek dio langile askok euskara ez jakitea dela arazoa, eta hau da, hain zuzen, laginean sartu genuen enpresa handi bakarra. Kasu horretan ezik, gainerako enpresetan -hau da, enpresa ertain eta txikietan- langile euskaldunen proportzioa inguruko gizartearena dela adierazten du honek.

Dena den, ondoriorik adierazgarriena eta era berean larriena honakoa da: enpresen jarduera eta eskaintza euskalduntzeak ez luke inongo kasutan irabaziak handituko, erantzuleen ustetan behintzat. Erantzun bera topatzen genuen Oarsoaldean, baina Urola aldean ere gauza bera pentsatzea harrigarria da: oso eremu euskalduna izanik, euskaraz gehiago aritzeak enpresari onura materialik ez liokela ekarriko zer esan nahi du? Agian bezeroek nahiago dutela gazteleraz aritzea, edo zerbitzua zein hizkuntzatan jasotzen duten berdin zaiela; langileen arteko harremanak euskaraz izateak ez duela eraginik hauen produktibitatean; beharrezkoa litzatekeen gastu gehiago ez egiteko aitzakia izatea; edo izan daiteke ere orain arteko dinamikaren inertzia dela eta, enpresarien usteak errealitatearekin bat ez etortzea.

Azken arrazoi hau benetazkoa balitz ere, erantzunen arabera, euskarak eduki dezakeen balio erantsirik ez dute ikusten inguru honetako enpresariek ere, eta esan dugun bezala, hau harrigarriagoa da Urola aldean, Oarsoaldean baino. Gogoratuz Euskal Herri osoan euskaldunen portzentaia %25 ingurukoa dela, gainerako eskualde industrializatuetan euskararen balio erantsiari buruzko iritzia zein izango den jakiteko ez dugu galdeketa gehiagorik behar.

Lehenago bezala, administrazioaren erantzunkizuna ere aipatu beharko genuke: hiru erantzunetan esaten da honelako ekimenek insituzioen babesik (diru-laguntzatan zehazturik) eduki ezkero, iniziatiba hartzeko garaian lagungarri gertatuko zela. Dena den, bi enpresek diote ez luketela gastu gehiagorik egingo euskalduntze plangintzetan, nahiz eta administrazioak lagunduta izan, eta antzeko erantzunik ez genuen topatzen Oarsoaldeko enpresetan.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, Erabilera-Planen azpibatzordea

Aipatuko ditugu ondoren, inkesta hauek azaldu dizkiguten emaitzen osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren menpe dagoen Euskararen Aholku Batzordearen txosten bat, euskararen Erabilera Planak azpibatzordeak osatutakoa. Lan-munduan euskararen erabilpena sustatzeko plangintzei buruzko txostena da bera, eta besteak beste, euskara bereganatzeak lan-munduarei onurak ekarriko dizkiola esaten da.

Tesi hori defendatzeko, ondoko argudioak aipatzen dira:

- Euskarazko zerbitzua eta produktuak eskaintzen dituzten enpresek kalitate handiagoa eskaintzen dute. Zerbitzu eta produktu horiek balio erantsia dute eta horrek lehiakideen aurrean abantailan jartzen ditu.
- Hizkuntz proiektuan inplikatzen diren langileak enpresarena den proiektu batean inplikatzen dira, lantiko horretan konpaktazio soziala eragin eta areagotuz. Ondorioz, euskara-planak lanerako motibazio-tresna bihur daitezke.
- Hizkuntz proiektuetan inplikatzen diren enpresak erronkei erantzuteko gaitasuna dutela erakusten ari dira, berrikuntzei ekiteko gai den enpresa dinamikoaren irudia isladatuko du bezero, hornitzaile eta gizarte osoan.
- Merkatuak nazioartera zabaltzen ari diren garai honetan, enpresaren jatorria eta jatorri horri lotutako hizkuntza erabiltzea izan daiteke euskal gizartearen marka edo labela arlo sozioekonomikoan.

Agerian geratzen da enpresak euskalduntzeko balizko abantaila hauen eta euskal enpresarien ikuspuntuen artean dagoen aldea. Inkesta erantzun duten enpresa guztietan, bai batez besteko euskaldun-portzentaia Euskal Herri osoarena duen eskualde batean, bai

eremu euskaldun batean ere, enpresaren barne eta kanpo jarduerak euskalduntzean egindako gastuek ez dira errentagarriak, hau da, ez dute balio izango sarrerak handiagotzeko.

Enpresetako jarduera euskalduntzea positiboa bada ere, Euskararen Aholku Batzordeak kasuan kasuko plangintzak egiteko beharra aurrikusten du, ez baita nahikoa lantokietan kontratatzen diren langile berriak euskaldunak eta euskaraz trebatutakoak izatea: enpresa batera sartzen den langileak ikasi behar du bere lanpostuko ezaugarri guztiak, eta horiek, hizkuntza aldetik, erdaraz dira. Langile berriak ez du indarrik enpresaren funtzionamendua aldatzeko, alderantziz baizik: langile berriak bereganatuko ditu enpresaren komunikazio-arau eta moldeak, eta okerragoa dena, gaztelera erabiltzearen eraginez bere euskarazko trebetasuna galduz joango da, lan arloari dagokionean, behintzat.

Ez dugu ahaztu behar honelako errealitateak hezkuntzaren esparruan bideratutako ahalegin eta errekurtso guztien baliagarritasuna zalantzan uzten dituela. Ez baldin bada nahikoa langileak euskaraz trebatuak izatea, bestelako bitartekoak ezarri beharko dira irakaskuntzan hasitako euskalduntze-prozesuak bere helburuak gizartera zabaldu ditzan.

Horren guztiaren ondorioz, lan-mundurako hizkuntz politika berezi bat beharrezkoa dela agerian geratzen da. Euskararen Aholku Batzordeak egindako proposamenaren arabera, hiru norabide osagarrietako ardatzak hartu beharko lirateke: gizarte osoari zuzendutako kanpainak burutzea, enpresa-erakundeak, sindikatuak eta elkargo profesionalak inplikatzea eta euskara lan-munduan erabiltzeko proiektuak gauzatzea.

Lehen esparruarri dagokionez, kalitateari buruzko kanpaina moduan, gizarteari erakutsi behar zaio euskara "hizkuntz oso" izateko, eguneroko lanorduetan erabilia izatea nahitaezkoa dela, eta horrek enpresaren helburu ekonomikoen kontrako eraginik eduki beharrean, gorago esan diren onurak sortzen dituela.

Bigarrenik, enpresa-erakundeak, sindikatuak, merkataritza-ganbarak eta elkargo profesionalak lan-munduan garrantzi handiko erakundeak direnez, beren laguntza eta partehartzea ezinbestekoa da lan-mundua euskalduntzeko beharrezkoak diren urratsak eman ahal izateko. Horretaz gain, erakunde horien barne-egitura eta partaideei eskaintzen dizkieten zerbitzuak euskalduntzeko prozesuak bideratu beharko lirateke, hala nola komunikabideekin dituzten harremanetan euskarak leku egokia duela ziurtatu.

Azkenik, eta azken urteetako esperientzietan oinarrituz, enpresa desberdinetarako mikroplangintzak diseinatzea proposatzen da. Aurrerantzean enpresa eta erakunde

gehiagotara zabaltzen direnean delako mikroplangintza horiek, multzokako planak bideratu beharko dira, beren artean bezero-hornitzaile harremanak dituztenen artean, eskualde berean ari direnen artean, sektore berekoetan, etab.

Oarsoaldean eta Urola aldean egindako inkestetan, enpresariek euskararen aldeko jarrera positiboa erakusten zuten bitartean, jarrera hori benetako euskalduntzea gauzatzeko zailtasunak agertzen ziren, gehienbat lan-jarduera eta eskaintza euskaraz egiteko egin beharreko aldaketek enpresen emaitzak hobetzeko bitarteko moduan ikusten ez direlako. Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako politika bultzatzeak lortuko luke enpresariek euskararekiko eduki dezaketen jarrera positiboa benetazko euskalduntze prozesuak bideratzeko.

AURREKO ESPERIENTZIAK

1998ko apirilean, eta Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera[8], hamalau dira dagoeneko euskararen erabilera planetan sartu diren enpresak. Elay eta Ikerlan izan ziren aurrendari planak abiarazten, eta, lortutako emaitzen argitan, euskararen erabilerak gora egin du, bai ahozko harremanetan, bai idatzizkotan. Planaren aplikazioa burutua dutenez, bi enpresa hauek dira metodologiaren egokitasuna erakusteko erreferentzia.

Bi enpresa horiekin batera, badira beste haibat planari ekin ziotenak eta egun gauzatzen ari direnak, bakoitza dagokion fasean: CAF, MCC-Zerbitzuak, Arlan, Labein, Kutxa eta Fagor-Ederlan. Eta enpresa hauetaz gain, badaude beste sei enpresa plangintzari aurten hasera eman diotenak: Alecoop, Fagor-Elektratresnak, Fagor-Sistemas, Irizar, JMA eta Maier.

ELAY

CAF

---

[8] Hizkuntza Politikarako Sailordetzak argitaratzen duen Euskararen Berripapera, 71. zkia, 1998ko apirila

Euskararekiko jarrera EHko industri-enpresetan

Gure lanaren ardatza egoera elebidunak, eta modu zehatzago batean, hizkuntza gutxitu baten existentziak komunitate batean dituen eragin ekonomikoak aztertzea da. Honen harian, sektore ekonomiko desberdinetan egoera linguistiko berezi honen eragina desberdina izango dela aurrikustea begi-bistakoa da: nekazaritza esplotazio txiki batean diharduten langileak familia berekoak badira, beren ama-hizkuntza erabiliko duten artean, lantegi handitan, non jatorri desberdineko beharginak ari diren lanean, talde linguistiko nagusiaren hizkuntzak aurre hartuko dio beste edozein hizkuntzari, edota gehienera ere, langile-multzo desberdinak sortuko dira, erabilitako hizkuntzaren arabera. Antzera, zerbitzu-enpresak egokituko dira bezeroen eskariari, eta ondorioz, hizkuntza gutxituak indarra duen lekuetan zerbitzuak hizkuntza horretan jaso ahal izatea errazagoa izango da, aurkako egoera linguistikoa duten eremuetan baino.

Euskal Herriari dagokionean, eremu euskaldunetako baserrietan, euskara lan-hizkuntza den bitartean, lantegietan egoera zeharo aldatzen da, Siadecok egindako azterketa guztietan erraz froga daitekeenez. Industri-enpresetan batez ere nabaria da hau, langile multzo handienak bezeroekin zein hornitzaileekin harremanik ez duelako. Bestalde, honelako enpresak pribatuak izanik, administrazioan euskaldunen eskubideak bermatzeko legedia (EAEren kasuan bereziki) aplikatzerik ez dago. Hau honela izanik, alegia, industri-enpresak euskararekiko esparru mugatuenetakoa osatzen dutelarik, interesgarria iruditu zaigu mota honetako enpresetan euskararen egoera zein den ezagutzea, eta batez ere, enpresetako arduradunentzat euskarak eduki dezakeen balio erantsiak zer-nolako garrantzia duen aztertzea.

Egia da badagoela zenbait esperientzia industri-enpresen iharduera euskalduntzen joateko. Hemen kokatzen ditugu CAF, Elay taldea, MCC taldeko zenbait kooperatibatan eta beste zenbait enpresatan indarrean dauden euskalduntze plangintzak, hala nola plangintza hauek osatzeko metodologi taldeak (Elhuyar, Euskalan). Honelako ekimenen egoera eta traszendentziari beste kapitulu bat eskaintzen diogu. Baina esperientzia bakanetatik at, euskararekiko jarrerak industri-enpresetan nolakoak diren ezagutu nahi dugu.

Gure azterketarako galdeketa bat prestatu dugu Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako industri-enpresetan banatzeko, beherago zehazten den metodologia erabiliz. Nagusiki, saiatu gara ikusten ea eskualde honetako enpresa arduradunen artean, euskara lan-hizkuntza moduan erabilia izateak eragin positiborik eduki dezakeen enpresen iharduera eta emaitzak hobetzeko garaian, eta hala balitz, emaitza positibo horiek lortzeko zenbateko inbertsioa egingo luketen euskalduntze egitasmoren bat burutzen.

Interesgarria izango litzateke CAF eta horietan emaitza positiboak erdietsi dituzten jakitea, ekonomi ikuspegitik, edo langile/enplegatuen presioari amore eman dioten soilik.

→ Gehiegizko zerrenda sortu behar da galdetegian

Euskararen egoera eta etorkizuna industri-enpresetan (Lezo, Errenteria, Pasaia, Oiartzun)

INKESTA

Lau herri hauek aukeratuak izan dira beren egoera linguistikoa Euskal Herriko bataz bestekoaren adierazgarri izan daitekeelako, euskal hiztunen proportzioari dagokionean, Gainera, Euskal Herrian zehar euskal hiztunen distribuzioa oso irregularra izanik, lau herri hauetan ere antzekoa gertatzen da (Oiartzunen euskaldunak biztanlegoaren %76a diren artean, Errenterian soilik %24a da euskalduna).

Laginaren lau herrietako, Gipuzkoako, EAEko eta EHko euskal hiztunak:

	Lezo	Errenteria	Pasaia	Oiartzun	Lau herriak	Gipuzkoa	EAE.	Euskal Herria
Euskaldunak / Ia-euskaldunak	2599 1134	10070 9804	4848 4002	6264 914	23781 15854	305403 123691	543617 410536	602354 182700
Biztanl(>2urte) Biztanleak	5179 5281	41096 41646	18041 18314	8228 8413	72544 73654	665012 676488	2068927 2104041	244485
Proportz. (%)	**50**+21 72	**24**+23 48	**26**+22 49	**76**+11 87	**32**+21 54	**45**+18 64	**26**+19 46	**24**+7 32

Ehunekoak: **2 urtetik goragoko biztanleekiko euskaldunak +**
+ 2 urtetik goragoko biztanleekiko ia-euskaldunak =
= Aurreko bien batura

Era berean, biztanlego aktiboaren banaketa sektoreka antzekoa da lau herri hauetan eta Euskal Herri osoan. Agian, langabezia zertxobait altuagoa da eskualde honetan desindustrializazioak eragin handiagoa eduki duelako beste zenbait eskualdetan baino. Kasu honetan ere, Euskal Herri osoko aniztasuna gordetzen da, lehen sektoreak Oiartzunen (nekazaritza) eta Pasaian (arrantza) indar berezia duelako.

· Hemen ondo azaldu behar liteke inkestaren helburua zein den eta honetarako ze galdera prestatu diren eta zergatik.

· Ondorioak pixka bat borobildu

· Antzeko zenbait CAF, MCC eta abar enpresetako

· Azpeiti-Azkoiti aldean eskatu zaizkie ?

Okupazio-mailak, lagineko herrietan, Gipuzkoan eta EAEn:

(%)	Lau herriak	Gipuzkoa	Euskal Aut. Erkid.
Biztanleak(≥16urte)	59.808	549.391	1.705.137
Biztanlego aktiboa	52,3	52,1	51,1
Biztanlego langilea	40,5	42,8	41,3
- nekazaritza/arrantz	1,9	1,3	1,2
- industria	13,1	16,5	15,0
- eraikuntza	4,0	3,1	3,1
- zerbitzuak	21,4	21,8	22,0
Langabetuak	11,8 (22,6)	9,3 (17,8)	9,8 (19,1)

Unibertsoaren datuak:

Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriako industri-enpresak.

Iturria: 1995eko EAEko industri-enpresen katalogoa.

Aukeratu den eskualdean 10 langiletik gora duten 122 industri-enpresa daude, herriz herri banatuta ondoko taulak adierazten duen moduan. Guztira 4975 langile daude enplegaturik, taulan herriz-herri sailkatuak. Bataz beste, enpresarik handienak Errenterian daude, eta txikienak, berriz, Lezon.

Herria	Enpresa kop. (%)		Langile kop. (%)		Lang./Enpr.
Lezo	28	(22,9%)	702	(14,1%)	25,0
Oiartzun	42	(34,4%)	1761	(35,4%)	41,9
Pasaia	30	(24,5%)	1147	(23,0%)	38,2
Renteria	22	(18,0%)	1365	(27,4%)	62,0
GUZTIRA	122	(100%)	4975	(100%)	40,7

Laginaren datuak, laburbilduta:

Laginarako, 31 enpresa hartu dira, hau da, guztien %25´4a, eta proportzio hau gorde da herriz-herriko selekzioan. Beraz, lagineko enpresen distribuzioa egiazkoaren parekoa da. 31 enpresa horietan 1364 langile daude enplegaturik, hau da, guztiaren %27´4a, eta proportzioa antzekoa da herriz-herriko selekzioan. Beraz, lagineko langilegoaren distribuzioa egiazkoaren parekoa da, eta ondorioz, laginerako hartuak izan diren enpresetan bataz beste lan egiten duten pertsona kopuruak mantentzen dira.

pertsonen kopuru

Herria	Enpresa kop. (%)	%	Langile kop.	%	Lang./Enpr.
Lezo	7 (22,5)	25,0	170 (12,4)	24,2	24,2
Oiartzun	11 (35,4)	26,1	501 (36,7)	28,4	45,5
Errenteria	8 (25,8)	26,6	320 (23,4)	27,8	40,0
Pasaia	5 (16,1)	22,7	373 (27,3)	27,3	74,6
GUZTIRA	31 (100)	25,4	1364 (100)	27,4	44,0

Enpresen tamainari buruz, unibertsoa honelakoa da:
4 enpresetan soilik 250 langile baino gehiago daude, guztira 1212 langile okupatuz (hau da, langilegoaren laurdena). Bestalde, enpresa gehienetan (110, edota totalaren %90´1an) 10 eta 99 langile artean dago enplegaturik, guztira 2620 langile izanik enpresa hauetan daudenak (langilegoaren erdia baino zertxobait gehiago).

Tamaina	Enpresa kopurua	Langilego totala
>250	4	1212 (24,3)
100-249	8	1143 (22,9)
10-99	110	2620 (52,6)
GUZTIRA	122	4975 (100)

Laginean hartu diren enpresen tamaina honakoa da:
Enpresa handien, ertainen eta txikien artean ere erizpide berdina erabili da: unibertsoaren laurdena hartzea. Ondorioz, langilegoaren distribuzioa enpresen tamainari dagokionean, antzekoa da unibertsoan zein laginean.

Tamaina	Enpresa kopurua	Guztiaren %	Langilego totala	Guztiaren %
>250	1	25,0	303 (22,2)	25,0
100-249	2	25,0	332 (24,3)	29,0
10-99	28	25,4	729 (53,4)	27,8
GUZTIRA	31	25,4	1364 (100)	27,4

Iruditzen zaigu lagina adierazgarria dela, enpresa totalen laurdena aztertzen delako (eta enpresek enplegatzen duten langilegoaren %27a enpresa hauetan dagoelako), enpresetako tamainaren eta kokapenaren distribuzioak gorderik. Beraz, inkestan lortzen diren emaitzek modu esanguratsu batean azaltzen dute enpresa hauetan euskararen egoera eta euskarari buruzko jarrera zein diren.

Oharra: lau herri horietan populazio aktiboaren % 17,1ek lan egiten badu industria eta eraikuntzan, 10.227 langile lirateke guztira, eta zerrendatutako enpresetan (10 langiletik gorakoetan) 4975 langile aritzen da, beraz, langilegoaren erdia baino gehiago (% 51,3a) 10 langile baino gutxiagoko enpresetan aritzen da, eta hauek ez ditugu kontutan hartu.

Oin oharra izan daiteke

ERANTZUNAK

Inkesta hau bidali zitzaien aukeratutako 31 enpresetako zuzendariari edo gerenteari. Erantzun zuten 10 enpresek, eta honek lehen ondorio bat adierazten digu: enpresa guztietatik bi herenak ez du gai honi buruzko interes gehiegirik (enpresa batzuetatik barkamena eskatu zuten, zenbait arrazoiengatik ez zutela erantzungo adieraziz: lanpetuta zeudela, inkesta gehiegi iristen zaizkiela, euskararen gaiak ez duela garrantzirik, e.a.). Dena den, erantzun kopuruak adierazten du industri-enpresa gutxi batzuk dutela euskararekiko nolabaiteko kezka.

Erantzundako galdetetetan, hauek dira jasotako emaitzak:

MAIZTASUN HANDIENEKO ERANTZUNAK (%30a baino gehiago)

1.- Euskararen erabilpena kanpo harremanetan:
Oso enpresa gutxik esaten du euskara erabiltzen duela kanpo harremanetan (bezero, hornitzaile eta beste erakundeekin -bankuak, administrazioa,...-), eta edozein modutan ere, kanpo harreman guztiekiko oso proportzio txikian (herri horietako euskaldunen proportzioa baino askoz ere txikiagoan), normalean hitzezko harremanetan.

1.1.- Kanpo harremanetan euskara ez erabiltzeko arrazoiak:
- bezeroek ez dute eskatzen

1.2.- Positiboa litzateke euskara erabiltzea:
- gure inguruaren hizkuntz egoerara egokitzeko modua litzatekelako
- Euskal Herrian kokatuta gaudelako

2.- Gure produktuak euskaraz eskaini ahal izateko:
- dauden langileak euskalduntzeko gastua egin beharko genuke

3.- Euskararen erabilpena enpresen barne ihardueran:
Kanpo harremanetan bezala, barne ihardueran euskara ia ez da erabiltzen.

3.1.- Enpresen ihardueran euskararik ez erabiltzeko arrazoiak:
- langile askok ez dakite euskaraz

3.2.- Enpresaren ihardueran euskara erabiltzea positiboa litzateke:
- enpresa euskaldunduko genukeelako

4.- Euskararen erabilpena publizitatean:

Orohar, publizitatea gazteleraz egiten da, zenbait kasutan euskaraz ere, eta baita beste zenbait hizkuntzatan ere (ingelesa, frantsesa,...)

4.1- Publizitatean euskara ez erabiltzeko arrazoiak:

- inoiz horrelakorik ez zaigulako bururatu
- gure merkatua Euskal Herritik kanpo dagoelako

5.- Prest egongo al zinateke enpresa euskalduntzeko gasturik egiteko?

Bai: 0 erantzun

Ez: - gastu hori ez delako beharrezkoa enpresarentzat
- gaurko egoeran, ezinezkoa zaigulako gastu gehigarririk egitea

5.1.- Hala ere, batzuk geroago aipatzen dute gastatu lezaketen diru kopuru bat

5.2.- Honelako gasturik diru sarrerak handitzeko balioko luke:

- bai: 0 erantzun
- ez: erantzun guztiak

ONDORIOAK

Eskualde honetako euskaldun kopurua garrantzitsua izanik ere, bertako industri-enpresetako arduradunentzat euskarak ez du pareko garrantzirik. Alde batetik, erantzunen kopuru murritzak nolabaiteko utzikeria adieraz dezake. Galdeketak telefonoz eskatu zirenean, gai honek enpresen ihardueran eragin gehiegirik ez duela eta, honelako galdeketak betetzea denbora galtzea zela adierazi zitzaigun erantzun gehienetan.

Bestalde, eta jasotako erantzunetatik, ondorio batzuk azpimarra ditzakegu. Lehena, enpresetako barne-ihardueran zein kanpo harremanetan, euskararen erabilpena oso urria dela. Honelako emaitzak lortu ziren ere Siadecok herri hauetako enpresetan egin zuen inkestan (_____ urtea). Gogoratu behar da inkesta honetan zehaztasun gehiagoz aztertzen zela euskararen egoera enpresetan, gure inkestan hau bigarren mailako helburua izan delarik.

Kanpo harremanetako erabilpen eskasari buruz, emandako erantzunen artean gehien aukeratuak bezeroen gain uzten du ardura, baina barne harremanetako erabilpen urria bertako langileen hizkuntz gaitasunari egozten zaio. Dena den, enpresen iharduera euskalduntzea positibotzat hartzen da, inguruko egoera linguistikoari egokitzeko eta enpresa bera euskalduntzea balio positiboa dela aitortzen delako. Bestalde, jarrera hau kontraesankorra dirudi publizitateari buruzko galderetan adierazten denarekiko, zeren publizitatea euskaraz egitea inoiz bururatu ez zaiela esaten baita.

Lan honen aurkezpenean esan denez, gure helburua, batez ere, enpresetako arduradunentzat euskarak eduki dezakeen balio erantsiak neurtzeko ahalegina da. Honi dagokionez, euskara enpresetako lan hizkuntza bihurtzeak gastu gehigarriak sortuko lituzke, batez ere langileen hizkuntz gaitasuna egokituz eta langile euskaldun berriak kontratatuz, eta enpresek honelako gasturik egiteko borondate gutxi azaltzen dute.

Adierazgarriago dena: enpresaren iharduera euskalduntzea positibotzat jotzen badute ere, inork ere ez du uste horrek eraginik edukiko duenik diru-sarreretan, alegia, euskalduntzearen alde ona hizkuntzaren egoera hobetzeagatik izango litzateke soilik, eta ez enpresaren mozkinak handituko liratekelako. Honek euskararekiko begirunea azaltzen badu ere, euskarak eduki dezakeen balio erantsirik ez dute ikusten inguru honetako enpresariek. Gure ustetan, enpresarien jarrerak ez du errealitatea osorik isladatzen (ikus lan munduan euskara ezartzeari buruzko Euskararen Aholku Batzordeko txostena, non enpresen euskalduntzearen alde positiboak aipatzen diren), baina noski, oso kontutan hartzekoa da, azken finean, edozein aldaketaren erabakia beren esku baitago.

Aurrekoarekin lotuta, administrazioaren erantzunkizuna ere aipatu beharko genuke: inkestari erantzundako kasu guztietan esaten da honelako ekimenek insituzioen babesik (diru-laguntzatan zehazturik) eduki ezkero, iniziatiba hartzeko garaian lagungarri gertatuko zela.

Just after writing this paper, I have received a document of the Advisory Board of Basque language, depending of the Basque Government, about the planification of Basque use in the labour sector.There are appointed the reasons for introduce Basque language in the entreprises´ activity. Here there are those reasons:

- The enterprises that offer products and services by Basque medium are offering more quality than the other ones. Their products and services have a larger added value and so, they have advantage as contrasted with the rivals.
- Basque-planning could be a integration factor for the workers. The enterprise, as an organization system, will go better if all the workers are identified with its own entrepreneurial project.
- The enterprise that can introduce Basque medium functioning would give the image of a dynamic enterprise, able to change and adapt itself to new circumstances.
- In the actual international market, the Basque specific nature of an enterprise is a identifying component for the customers, that is to say that Basque language is a symbol of the Basque label.

These reflections seem only good intentions if we compare them with the mentioned answers: all the enterprises that have answered to the inquiry think that expenditures for introducing Basque language are not profitable in order to increase the income.